


Victor Hugoren bildumarik ezagunena, 1856an argitaratua, 1843 urte inguruan sortua da, Villequier-en, Sena ibaian istripuz ito zen bere alaba Leopoldine-ren heriotzaren urtean. “ Bihar, egunsentiz...” 1847an idatzi zuen, haren heriotzaren hirugarren urteurrenean.

1843



E. Dubufe. Leopoldina Hugo. MVH©AKG. París

Bihar, egunsentiz, zelaiak zuritzen diren horretan,
Alde eginen dut. Horra, badakit ene aiduru zarella.
Basoan barrena joanen naiz, mendian barrena.
Ez naiz haboro egoten ahal zugandik urrun.


Begiak ene gogoetetan tinkatuak joanen naiz,
Inguruko deusi ohar eman gabe, soinurik entzun
gabe,
Bakarrik, arrotz, bizkarra makur, eskuak
antxumaturik,
Triste, eta gauaren antzekoa izanen da enetzat eguna.

Ez dut begiz joko ez ilunabarraren urrea,
Ez urrunean Harfleur aldera datozen belak,
Eta, heldutakoan, gorosti sorta berdea eta txilarra
loretan
Paratuko ditut ene hilobiaren gainean.

1847 irailak 3

Soaldiak, 4. liburukia, 14

“Bihar, egunsentiz...”



BNF, ms., n.a.f. 13853, f°265 © Jean Vigne.

Frogatu ondoren, hirugarren bertsuaren amaieraren azpiko “gelditu ezin naitekeenez” aldakia baztertu egin zuen Victor Hugok. Azken bertsuon idatzi eta ondoren baztertu zuen beste bertsio batekin ere saiatu zen, orriaren bukaeran: “gorosti sorta berdea eta txilarra loretan” beharrean “eta loratan dagoen salbiarenak”.